

Agosti Xaho eta Historiaren Filosofia

Zabaltza, Xabier¹

Haren garaiko beste idazle batzuk bezala, Agosti Xaho Historiaren Filosofia bat egituratzen saiatu zen. Xahoren ustezko abertzaletasuna eta sozialismoa filosofia horren azaleko osagaiak besterik ez dira. Eguzkiaren Seme-Alabek (hegoaldeko herriek) eta Gauaren Seme-Alabek (iparraldeko herriek) mundua denez geroztik elkarriz eginiko borroka da haren kontzepzio historiko ezkorren muina. Aitor aitalehena eta Tartaro begibakarra dira etsai gorri eta eternal horien totemak.

Giltza-Hitzak: Historiaren Filosofia. Gnostizismoa. Euskal nazionalismoaren aitzindariak. Erromantizismo frantsesa.

Tout comme d'autres auteurs de son époque, Augustin Chaho tenta d'élaborer une Philosophie de l'Histoire. Le prétendu nationalisme basque de Chaho, de même que son prétendue socialisme ne sont guère que des éléments secondaires de cette philosophie. Le fondement de sa conception historique pessimiste est la lutte depuis que le monde est monde entre les Enfants du Soleil (les peuples du Sud) et les Enfants de la Nuit (les peuples du Nord). Le patriarche Aïtor et le cyclope Tartaro son les totems de ces ennemis mortels et éternels.

Mots-Clés : Philosophie de l'Histoire. Gnosticisme. Précurseurs du nationalisme basque. Romantisme français.

Como otros autores de su época, Augustin Chaho intentó articular una Filosofía de la Historia. El supuesto nacionalismo vasco de Chaho, así como su supuesto socialismo, son solamente elementos secundarios de esa filosofía. El fundamento de su pesimista concepción histórica es la lucha desde que el mundo es mundo entre los Hijos del Sol (los pueblos del Sur) y los Hijos de la Noche (los pueblos del Norte). El patriarca Aitor y el cíclope Tártaro son los tótemes de esos enemigos mortales y eternos.

Palabras Clave: Filosofía de la Historia. Gnosticismo. Percusores del nacionalismo vasco. Romanticismo francés.

1. Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fak. Gaur Egungo Historiaren Saila. Sarriena z/g. 48940 Leioa. E-mail: xabier.zabaltza@ehu.es

AITZINSOLASA

Artikulu honetan, Agosti Xahoren ideologiako kontu garrantzitsu batzuk aurkeztuko dira. Berehala ikusiko den bezala, ideologia hori oso korapilatsua da, baina, kontatu ohi den txiste errazaren kontra (*Chaho = chaos*), barne-batasun handia du bere baitan. Haren garaiko eta aurreko garaietako beste idazle batzuk bezala, Xaho Historiaren Filosofia oso bat egituratzen saiatu zen, non Euskal Herriari egiteko berezi bat baitzegokion. Hemen, Umezurtzaren pentsamendu aberatsaren ezaugarriak eta balizko iturriak aipatuko dira.

1. HISTORIAREN FILOSOFIA ZER DEN

Hasiko gara, beraz, Historiaren Filosofiaren kontzeptua bera azaltzen. Ez da erraza izan. Esan dezagun abiapuntu moduan, Historiaren filosofoen arabera, historiak zentzu bat, helburu bat duela (alegia, teleologikoa da) eta lege batzuk ere bai, iragana ezagutzeko, oraina ulertzeko eta geroa iragartzeko bidea ematen digutenak. Gaur egun, XXI. mendean, historiaren interpretazio oso horiek gaingituak eta zahartuak daude, baina, oraindik orain, XX. mendearen bukaeran, Francis Fukuyama amerikar politologoa ospetsu egin zen *The End of History and the Last Man* (1992)² argitaratu zuenean, non, Hegel-i ikuspegi kontserbadore batetik jarraitzen, saiatu baitzen frogatzen demokrazia liberala eta kapitalismoa direla, hurrenez hurren, gizateriaren bilakaera politiko eta ekonomikoaren gailurrak. Fukuyamaren pentsamenduan ere teleologiak garrantzi berezia du.

XVIII. mende arte, historiaren interpretazioak teleologikoak ez ezik, teologikoak ere izaten ziren, idazle gehienak bat baitzetozen pentsatzerakoan Probidentziak gidatzen zuela gizateriaren bilakaera³. XVIII. eta XIX. mendeetan eta XX. mendearen lehen erdialdean, Jainkoaren ordezkariak beste idolo batzuk jartzen saiatu ziren. Fukuyamaren maisuak, Hegel-ek, Estatua bihurtu zuen historiaren subjektu⁴. Beste idolo bat, agian garrantzitsuena, nazioa izan da. Etabaidatzen ahal da, adibidez, marxismoa historiaren filosofia bat ote den. Marxismoaren bertsiotzat zabalduenaren ustez, historia osoa klaseen arteko borroka bat da, borroka horien helburua klaserik gabeko gizartea lortzea delarik. Alegia: Marxen arabera, bada giza bilakaera politiko eta ekonomikoaren beste maila bat, demokrazia liberala eta kapitalismoa baino gorago eta aurreratuago: komunismoa. Marxismoa ere (edo marxismoaren alor hori, behintzat) filosofia teleologikoa bat da⁵.

2. ARRAZEN ARTEKO BORROKA

Nazioa aipatu dut historiaren subjektu gisa. Nazioa kontzeptu anbigua izan da beti. Alde batetik, herritarren taldea izan daiteke. Bestetik, jatorri etniko bera dutenen taldea.

2. FUKUYAMA, Francis. *The End of History and the Last Man*, New York: Free Press, 1992.

3. Erdi Aroko Probidentziaren eta Aro Berrietako Aurrerapenaren mitoen arteko loturetarako, ikusi adibidez BURY, John B. *La idea de progreso*, Madrid: Alianza Editorial, 1971 [1920].

4. HEGEL, Georg Wilhelm Friedrich. *Lecciones sobre la Filosofía de la Historia universal*, Madrid: Alianza Editorial, 1980 [1837].

5. Marxismoa Filosofiaren Historia bat bailitzan ulertzeko ahaleginen kritika bat, ikuspegi marxistatik: FONTANA, Josep. *Historia: análisis del pasado y proyecto social*, Barcelona: Crítica, 1982.

Teorian bi kontzepzioen arteko mugak gardenak dira. Praktikan, biak nahasten dira. Hau ez da tokia gai horretaz luzaz idazteko, baina esan nahi nuke ez dagoela nazionalismo zibiko hutsik, nazionalismo etniko hutsik ez dagoen bezala. Nazionalismo guztietan, neurri batean edo bestean, bi osagai motak elkartzen dira⁶.

Historiaren interpretazio arraziala (ez naiz ausartzen “arrazista” esatera) Europako zibilizazioarekin batera sortu zen eta ez dagokie bakarrik nazionalismo etnikoei, alemanari, adibidez. Tradizio liberal luzea duten herrialdeetan ere interpretazio hori nagusi izan zen. Ez hori bakarrik: parlamentarismoa arrazen arteko borroka horren izenean aldarrikatu izan da. Ingalaterrako “normandiar uztarria” izeneko mitoa interpretazio horren adibide garbi bat da, XVII. mendeko Gerra Zibilean *levellers* eta *diggers* talde erradikalen jarrenen oinarritako balio izan zuena. Talde horiek normandiarren konkista baino lehenagoko egoerara itzuli nahi zuten, anglo-saxoniarrak bakean eta askatasunez bizi omen ziren garaia⁷. Xahoz ari garenez, merezi du Frantziako “bi arrazen arteko gudu” aipatzea. Mito hori Jean Le Laboureur-ek (1623-1675) asmatu zuen XVII. mendean eta, bi mendez, zeregintsu eduki zituen ideologo eta historialari frantses guztiak. Nobleek (Saint-Simon-eko dukeak, Montesquieuk eta Boulainvilliers-ek, adibidez) inbasore frankoen ondorengoak izan nahi zuten eta, pentsatzen zutenez, populu xehea galiarren eta erromatarren jatorrikoa zen. Estamentuen arteko diferentzien hasiera eta justifikazioa, beraz, frankoen garaipena eta galo-erromatarren desagigoa ziren. Heren Estatuaren aldekoek (Dubois-ek, Mablyk, Sieyès-ek, Thierryk eta Guizot-ek) argumentu berak erabili zituzten, baina iraulirik. Haien ustez, noblezia endekatua, usteldua zegoen eta, beraz, galo-erromatarren ondorengoei zegokien Frantziako gobernuak. Iraultza baten bidez, boterea usurpatzaile frankoei kendu eta jabe legitimoek itzuliko zitzaizkien⁸.

Xahoren ideiak bi arrazen arteko guduaren eskeman barruan kokatzen dira. Borrokan dauden bi herriak, Xahoren arabera, ez dira frankoak eta galo-erromatarrak, baizik eta Eguzkiaren Seme-Alabak (euskaldunak eta hegoaldeko beste herriak, hala nola, iberiarrak, egiptoarrak eta indoeuropar aurreko indiar eta persiarrak) eta Gauaren Seme-Alabak (zeltak eta iparraldeko beste herriak, gaztelauak bereziki). Entzun diezaiogun Xahori berari nola kontatzen duen 1845ean, *Ariel* kazetan argitaratu zuen *Aitorren kondairan*:

Le plus ancien des peuples qui ait habité après nous la Péninsule espagnole, fut le peuple des Celtes. Les fables enveloppent leur origine et leur histoire. Un monstre, un cyclope fut leur aïeul, et leur père un géant farouche appelé Celtus, dont les deux frères, Illyrus et Galla, achevèrent, après lui, la conquête de l'Europe. C'est du Nord, c'est de la région du froid et des ténèbres que vint la race infecte des géants. Nos petits enfants les appellent *Tartaro*, lorsque dans les veillées d'hiver, écoutant le récit de l'âge écoulé, nous les voyons se presser

6. Ustekoz bi nazionalismo moten arteko antz eta ezberdintasunetarako, ikusi ZABALTZA, Xabier. *Una historia de las lenguas y los nacionalismos*, Barcelona: Gedisa, 2006, bereziki 189-208. or.

7. POLIAKOV, Léon. *Le mythe aryen. Essai sur les sources du racisme et des nationalismes*, Bruxelles: Éditions Complexe, 1987 [1971]; 59. or.

8. KÖHN, Hans. *Historia del nacionalismo*, México: Fondo de Cultura Económica, 1949 [1944], 180-181. or.; POLIAKOV, Léon. *Le mythe aryen. Essai sur les sources du racisme et des nationalismes*, Bruxelles: Éditions Complexe, 1987 [1971]; 28-48. or.; CHABOD, Federico. *L'idea di nazione*, Roma, Bari: Laterza 1992 [1961]; 39. or.

avec terreur contre le sein maternel et trembler comme la feuille des bois, au souvenir de la férocité des Barbares⁹.

Lerroalde honetan, Xahok modu alegoriko eta zeharkakoan, datu asko ematen dizkigu bere pentsamenduaren iturriez. Esan genezake bost esaldi hauetan haren ideologia osoa bildurik dagoela. Haren arabera, euskaldunak Iberia osoan bizi ziren (eusko-iberismoaren aldekoa zen atharraztarra), zeltak edo *tartaroak* etorri arte. Iliriarrak zelten ahaidetzat jotzen zituzenez, ulertu behar dugu indoeuropar herri guztiez (edo behintzat, gehienez) ari zela.

Xaho baino askoz lehenagotik, zelten eta ziklopeen jatorria berdindua zen. Kristo aurreko I. mendean, Dionisio Halikarnasokoak esana zuen, zelten aitalehenena, Keltos, erraldoi bat zela¹⁰. XVI. mendean, Vinko Pribojevic kroaziar dominikoak, paneslavismoaren aitzindariak, adierazi zuen Illyrus, Kadmo edo Polifemoren semea, eslaviarren aitalehena zela¹¹. Baina, kontu honetarako Xahorengan eragin handiena izan zuena Paul Pezron (1639-1706) izan zen. XVII. mende bukaerako historialari bretoi horren arabera, "zeltak" (alegia, indoeuropar herri guztiak berriro) Titanen ondorengoak dira¹². Xahok oso ongi ezagutzen zituen Pezronen obrak. Gero ikusiko dugun bezala, Pezronen kronologia ez zen Bibliaren testu masoretikoan oinarritzen, Hirugeita Hamarren testuan baizik, eta Lurraren adina bi mila urte atzeratu zuen bretoiak, Xahok bezala.

Tartaro, Tartalo, Ttartalo edo Torto Euskal Herriko mitologiako pertsonaia bat da¹³. Ziklope bat da, begi bakarreko erraldoi bat, alegia. Pribojevic-en arabera, iliriarrak Polifemoren Seme-Alabak baziren, logikoa zen pentsatzea zeltak beste ziklope baten haurrak zirela, alegia, Tartarorenak (edo, agian, Xahok pentsatzen zuen Polifemo eta Tartaro mamu beraren bi izen zirela). Harrigarria bada ere, Xahok ez zuen ia-ia deus asmatu. Ez honetan, ez beste gauza askotan ere. *Aitorren kondaira*-n aspaldidanik zetozen ideiei itxura literarioa eman baizik ez zuen egin.

Aipatu ditudan egileengandik, bereziki Pezronengandik, hartu zuen Xahok iparraldeko herrien eta erraldioen arteko identifikazioa. Tartaro zen herri horien aitalehena edo totema. Oso goiz, *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques* liburuan, 1836an argitaratu zen horretan, Aitor asmatu zuen hegoaldeko herrien aitalehena izateko. Aitor Adanekin berdintzen du batzuetan¹⁴, Abraham israeldar eta arabiarren aita-

9. CHAHO, Augustin. *Histoire primitive des Euskariens-Basques, langue, poésie, mœurs et caractère de ce peuple, introduction à son histoire ancienne et moderne*, Madrid, Bayonne: Jaymebon Éditeur, 1847 ; 180. or.

10. MANGAS, Julio, eta PLÁCIDO, Domingo (ed). *La Península Ibérica Prerromana de Éforo a Eustacio. Testimonia Hispaniae Antiqua IIB*, Madrid: Fundación de Estudios Romanos, 1999; 691. or.

11. BANAC, Ivo. *The National Question in Yugoslavia. Origins, History, Politics*, Ithaca, London: Cornell University Press, 1988; 24-25. or.

12. PEZRON, R. P. Dom. *Antiquité de la nation et de la langue des Celtes, autrement appelez Gaulois*, Paris: Chez Jean Boudot, 1703.

13. BARANDIARAN, José Miguel de. *Diccionario ilustrado de mitología vasca y algunas de sus fuentes. Obras completas I*, Bilbao: Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, 1972; 223-226. or.

14. CHAHO, J.-Augustin. *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*, Bayonne: P. Lespés Éditeur, 1865 [1836]; 375. or., oharra.

lehenarekin beste batzuetan¹⁵, eta Tubal espainolen aitalehenarekin beste batzuetan¹⁶. Ez dago batere garbi, beraz, Jon Juaristik esan duena, alegia, Xahok juduen aitalehentzat jotzen zuela Adan eta horregatik asmatu zuela Aitor, euskaldunei tradizio biblikoarekin hausten zuen aita berezi bat emateko¹⁷. *Philosophie des religions comparées* liburuan (1848), Adanez gain, gizateriaren balizko beste hiru aita aipatzen ditu: Xisuthro sumertarra, Meshia persiarra eta Bergelmer eskandinaviarra, baina aita bakar bat (edo milioika aita) izateko aukera baztertu gabe¹⁸. Alegia, ezin dugu baieztatu Xaho poligenista zela, Juaristik dioen bezala.

Juaristik¹⁹ Xahori leporatzen dion salaketa larri bat ere ez da egia. Xaho ez zen antisemita. Ezin izan. Ez zuen judu eta arioen artean bereizten, batzuk eta besteak iparraldeko herriak zirelakoan²⁰. Haren pentsamendua Bibliaz eta Kabbalaz elikatzen da, nahiz eta haren modura euskaldundurik. Aztiaren erlijioan, *Tora*-ren ordeztu Gernikako legea dago indarrean; hebreeraren ordeztu, euskara; Israelgo hamabi leinuen ordeztu, Euskal Herriko zazpi herrialdeak (teosofo guztiak bezala, obsesionaturik zegoen zazpi zenbakiarekin); eta Mikel aingeruaren ordeztu, Ariel²¹. Juaristik dio aingeru horren izena *aryen*-ekin dagoela lotua. Aitzitik, hebreerazko izen bat da (“Jainkoaren lehoia” esan nahi du), Shakespearek *The Tempest* antzezlaneko izpiritu bat eta Xahoren bi ezagunek, Charles Lassaillyk (1806-1843) eta Théophile Gautier-ek (1811-1872), 1836an Parisen sortu zuten kazeta (*Ariel. Journal du Monde Élégant*) izendatzeko erabili zutena²². Xahok kazeta horrextatik hartu zuen Baionan 1844tik aurrera editatu zuen aldizkariaren izena. *Arien* edo *aryen* hitza, esanahi arrazista eta sasi-zientifikoarekin, 1859an dokumentatzen da lehenbizikoz, frantsesez, Pictet-ek erabilirik, Xaho hil eta gero²³. Indoeuropar hizkuntzako herrien ustezko nagusigoaren ideia Ernest Renan-ek (1823-1892) sustaturik zabaldu zen Frantzia, Xahoren ondoren²⁴.

15. CHAHO, J.-Augustin. *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*, Bayonne: P. Lespés Éditeur, 1865 [1836]; 87. or., oharra.

16. CHAHO, Augustin. *Histoire primitive des Euskariens-Basques, langue, poésie, mœurs et caractère de ce peuple, introduction à son histoire ancienne et moderne*, Madrid, Bayonne: Jaymebon Éditeur, 1847; 104. or.

17. JUARISTI, Jon. *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, Madrid: Taurus, 1988; 96-97. or.

18. CHAHO, Augustin. *Philosophie des religions comparées*, Paris, 1848, I; 72. or.

19. JUARISTI, Jon. *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, Madrid: Taurus, 1988; 96-97. or.

20. Xahok Egiptoko hiksoen, eszitiarren ahaideen, ondorengotzat jotzen zituen juduak. CHAHO, Augustin. *Paroles d'un voyant*, Bayonne: Harriet, 1989 [1834]; 64. or.; CHAHO, J.-Augustin. *Dictionnaire Basque, Français, Espagnol et Latin, d'après les meilleurs auteurs classiques et les dictionnaires des Académies française et espagnole*, Bayonne: Lespés, 1856; 56. or.

21. CHAHO, Agosti. *Azti-beguia, Ziberou herri mañtari, Pariserik igorririk, beste hanitchen aitzindari, arguibidean*, Paris: Librairie Orientale de Prosper Dondey-Dupré, 1834, *passim*; CHAHO, Augustin. *Paroles d'un voyant*, Bayonne: Harriet, 1989 [1834], *passim*.

22. MOULINAT, Francis. “Lassailly + Gautier. Ariel = une élégante retraite?”. In *Bulletin de la Société Théophile Gautier*, tome I, 1993, numéro 15; 231-247. or.

23. REY, Alain (dir.). *Dictionnaire historique de la langue française*, Paris: Le Robert, 1998, I; 224. or.

24. POLIAKOV, Léon. *Le mythe aryen. Essai sur les sources du racisme et des nationalismes*, Bruxelles: Éditions Complexe, 1987 [1971]; 234. or.

Iparraldeko eta hegoaldeko herrien arteko borroka eternala Antoine Fabre d'Olivet (1767-1825) okzitaniarrari ikasi zion zuberotarrak, baina berezitasun batekin. Fabre-ren arabera, iparraldeko herriak, zuriak alegia, dira zintzoak eta hegoaldeko herriak, beltzak, Saturno edo Satanen jauresleak, gaiztoak²⁵. Okzitaniar idazlearen arabera, jatorrizko berdintasuna beltzen eta zurien arteko borrokengatik hautsi zen, noblezia borroka horien ondorioz sortu baitzen. Xahok Fabre-ren eskema irauli eta hegoaldeko herriak bihurtu zituen historiaren ongile. Harrigarria da Xahoren pentsamenduaren koherentzia. *Continuum* bat dago haren lehen obretatik (1834ko *Paroles d'un voyant*-etik adibidez) azken obretara (1856ko *Dictionnaire Quadrilingue*-ko aitzinsolasera, adibidez). Haren gogoan bi pare antagoniko agertuko dira beti: Hegoa eta Iparra, Eguzkia eta Gaua, Ongia eta Gaizkia, Iberiarrak eta Zeltak, Euskaldunak eta Gaztelauak, Aitor eta Tartaro. Manikeismo hori berriro aurkituko dugu 1833ko gerraz mintzatzen garenean. Horretan Ongia karlistengan haragitu zen eta Gaizkia, liberalengan.

3. HISTORIA BIRIBILA

Xaho horretan gelditu zitekeen, baina ez zen horrekin konformatu. Euskal Herria ez zuen aski. Mundu osorako balio izan zezakeen teoria bat nahi zuen eta horretantxe datza haren originaltasuna. Aztia iparraldeko eta hegoaldeko herrien arteko borroka eskema zabalago batean kokatu zuen. Antzinako pitagoriko eta estoikoei jarraituz, Umezurtzak pentsatzen zuen historia ez dela lerro bat, biribil bat baizik. Alegia: 60.000 urtetik behin errepikatzen da. Nolabait "itzulera eternal" batean sinesten zuen, Friedrich Nietzsche (1844-1900) filosofo alemanak hamarkada batzuk geroago zabalduko zuen doktrina berean. Allan Sandage (1926-2010) astrofisikari estatubatuarrek antzeko zerbait pentsatzen zuen: unibertsoa sortu eta suntsitu egiten dela, ez 60.000 urtetik behin, noski, 80.000.000.000 urtetik behin baizik²⁶.

Xahok zioenez, mundua gaztea da: 8.000 urte ditu bakarrik. Horretan nahiko kontserbadorea izan zen. Bibliaren bertsio masoretikoan oinarriturik, XIX. mendearen lehen erdian, europar gehien-gehienek sinesten zuten mundua bakarrik pixka bat gazteago zela (6.000 mila urte inguru), baina, Xaho baino lehenago, Georges-Louis de Buffon (1707-1788) naturalista frantses handia ausartua zen jendaurrean esatera Lurrak gutxienez 75.000 urte zituela (gaur dakigunez, 4.500.000.000 urte ditu)²⁷. Xahok, Pezronek bezala, ez zion jarraitzen Bibliaren bertsio masoretikoari, Hirurogeita Hamarrenari baizik. Bi bertsioen artean bi mila urteko aldea dago munduaren adinari dagokionez. Pezronen

25. FABRE D'OLIVET: *Histoire philosophique du genre humain ou l'homme considéré sous ses rapports religieux et politiques dans l'État social, à toutes les époques et chez les différents peuples de la terre*, Paris: Chez J. L. J. Brière, 1824.

26. BORGES, Jorge Luis. "Historia de la eternidad" (1936). In *Obras completas*, Buenos Aires: Emecé Editores, 2002, I; 347- 423. or.; ELIADE, Mircea. *El mito del eterno retorno: arquetipos y repetición*, Madrid: Alianza Editorial, 1999 [1949].

27. Egia esan, Buffon-ek pentsatzen zuen Lurrak 3.000.000 urte zituela gutxienez, baina, konturaturik haren garaikideak adin hori onartzeko prest ez zeudela, 75.000 urte bakarrik zituela adierazi zuen jendaurrean. Hala ere, Eliza Katolikoak behartu zuen bere hipotesietan atzera egitera. Ikusi BARSANTI, Giulio. *Una lunga pazienza cieca. Storia dell'evoluzionismo*, Torino: Giulio Einaudi Editore, 2005; 86-87. or.

kalkuluen arabera, Aro Kristaua munduaren 5873. urtean hasi zen²⁸. Pezron-en (eta Xahoren) kronologia hori, baina, ez zen batere arrakastatsua izan. Kristauen artean, James Ussher-enak egín zuen bide, munduaren sorrera Kristo aurreko 4.004. urtean jarri zuenak, eta juduen artean, Yose ben Halaftarenak, Kristo aurreko 3.760. urtean jarri zuenak.

Esan dugu Historiak 60.000 urte dirauela. 60.000 urte horiek lau arotan zatitzen dira. Eguzkiaren Seme-Alabak paradisuan bizi izan ziren Lehen edo Urrezko Aroan. Aro horrek 3.000 mila urte iraun zuen, gutxi gorabehera, Kristo aurreko 6.000tik 3.000ra bitarte. Garai hartan, Eguzkiaren Seme-Alabak gaurko Europaren hegoaldean, Afrikan eta Asian bizi ziren. Gauaren Seme-Alaben inbasioaren ondorioz, paradisua bukatu eta Bigarren Aroa gertatu zen, Kristo aurreko 3.000tik Ora iraun zuena. Orduan, Eguzkiaren Seme-Alabak Euskal Herriko gaur egungo zazpi herrialdeetara mugaturik gelditu ziren. Hirugarren Aroa duela 2.000 urte hasi zen. Bigarren eta hirugarren aroetan euskaldunek gerra besterik ez dute ezagutu: zeltiberiar, feniziar, kartagotar, erromatar, godu eta mairuen kontra:

La conquête des Barbares déposséda nos ancêtres de leur beau territoire, et renversa dans toute l'Ibérie les chênes de leurs républiques fédérées. Le pays des Euskariens, *Eskual-Herria*, qui embrassait primitivement toute la Péninsule hispanique et une partie des Gaules, se trouva désormais restreint aux sept petites provinces que les Basques occupent aujourd'hui, dans les Pyrénées occidentales [...]. A dater de l'invasion hyperboréenne, divers peuples, tels que les Celtibères, les Phéniciens, les Carthaginois, les Romains, les Goths et les Maures ont tour à tour conquis l'Espagne; et pendant plus de trente siècles de combats, la fédération euskarienne, retranchée dans ses montagnes, a su défendre, contre les hordes barbares, l'indépendance originelle de ses républiques, ses mœurs et ses lois patriarcales, les dialectes de sa langue primitive et la gloire de son antique nationalité²⁹.

Oraindik Hirugarren Aroan gaude, baina, 1830eko hamarkadan, Laugarren Aroa, hegoaldeko herrien nagusigo berria ekarriko duena, iragartzen zuten zantzu batzuk igartzen hasiak ziren: iraultzak eta karlistada, adibidez. Historiaren kontzepzio zikliko hori, hinduismotik, mazdeismotik, Hesiodogandik eta filosofia grekotik hartua, funtsezkoa da pentsamendu zahotiarrean eta esplikatzen du zergatik jarri zen karlisten alde, errepublikarra izanik ere³⁰.

Badakigu Laugarren Aroaren ondoren, hots, 60.000 urteko zikloa bukatu ondoren, Lurra uholde edo sute baten bidez sunsituko dela, berriro sortu ahal izateko, baina Xahok ez du azaltzen noiz bukatuko den Hirugarren Aroa ez eta zenbat iraunen duen Laugarren

28. PEZRON: *L'antiquité des tems rétablie et défenduë, contre les Juifs et les Nouveaux Chronologistes*, Amsterdam: Chez Henry Desbordes, 1687. Xahok ongi zeritzon Pezronen lan horri. Ikusi CHAHO, Augustin. *Histoire primitive des Euskariens-Basques, langue, poésie, mœurs et caractère de ce peuple, introduction à son histoire ancienne et moderne*, Madrid, Bayonne: Jaymebon Éditeur, 1847 ; 166. or. eta ARKOTXA, Fermin. "150 anniversaire de l' *Uscal-Herrico Gaseta*". In *Lapurdum*, III, 1998 ; 185. or.

29. CHAHO, J.-Augustin. *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*, Bayonne: P. Lespés Éditeur, 1865 [1836]; 89-90. or.

30. 1834rako kontzepzio zikliko eta militarista hori oso erroturik zegoen Xahorengan, urte horretan argitaratu zituen hiru lan garrantzitsuetan argi eta argi adierazten den bezala, ikusi: *Azti-beguia, Ziberou herri maïtiari, Pariserik igorrik, beste hanitchen aïtzindari, arguibidean*, Paris: Librairie Orientale de Prosper Dondey-Dupré, 1834; *Paroles d'un voyant*, Bayonne Harriet, 1989, [1834] ; *Paroles d'un Bizkaïen aux libéraux de la Reine Chistine*, Paris: Librairie Orientale de Prosper Dondey-Dupré, 1834.

Aroak ere. Indiako Manuren Legeen arabera, lau *yuga* edo aroek 12.000 jainkozko urte diraute guztira: 4.800 lehenak (*Krita* edo *Satya Yuga*-k), 3.600 bigarrenak (*Treta Yuga*-k), 2.400 hirugarrenak (*Dvapara Yuga*-k) eta 1.200 laugarrenak (*Kali Yuga*-k), betiere 1.200en multiploak, goitik beherako proportzioan³¹, baina horrek ez dirudi Xahoren eskema, argi eta garbi utzi baitzuen lehen eta bigarren aroek berdin iraun zutela, hiruna mila urte, hain zuzen ere.

Xahoren kontzepzio historikoa mito paganoetatik hartua dago hein batean, baina bat dator haren *Weltanschauung* erlijiosoarekin. Ez da eskema ateo bat, ez eta laiko bat ere. Probidentziak gizateriaren patua gidatzen segitzen du, oso noizean behin munduratzten diren aztien bidez. Laugarren Aroaren hasiera iragartzen duen aztia Agosti Xaho bera da, "Umezurtza" (*Orphélin* frantsesez, *Orphée* edo Orfeo Bigarren Aroko aztia garrantzitsuenetakoa baten izenaren antzagatik aukeratu ote zuen izengoiti hori?)³².

4. XAHOREN USTEZKO ABERTZALETASUNA ETA HAREN USTEZKO SOZIALISMOA

Xaho ustez lehen abertzalea eta, agian, lehen euskal sozialista (edo areago: lehen aberzale sozialista) izateagatik da ezaguna Euskal Herrian. Hemen saiatuko naiz azaltzen abertzaletasun hori eta sozialismo hori haren pentsamenduaren osagai bat besterik ez dela, haren Historiaren Filosofiarekin guttiz bat datorrena.

Aztia XVI. mendetik aurrerako euskararen apologisten oinordekoa da. Apologistek bezala, eusko-iberismoaren eta kantabrisismoaren mitoak indartu zituen. Kantabrismoa paradigma bereziki garrantzitsu bat da: kantabriarrek –euskaldunek, alegia–, erromatarrek inoiz menderatu ez zituztenek, goduei, musulmanei eta gaztelaeui ere aurka egin diete eta independentziari eutsi diote karlistada arte:

L'invasion hyperboréenne est toujours suivie de guerres séculaires: elle apporte avec un système oppresseur, qui a pour but ou d'exterminer par le sabre les populations indigènes, ou d'anéantir, au moyen de leur fusion avec la race conquérante, leurs lois, leurs mœurs leur langage et jusqu'au souvenir de leur nationalité³³.

Les Hauts-Navarrais et les Cantabres sont aujourd'hui en armes, de l'autre côté des Pyrénées, pour défendre, contre les Impériaux de la Castille, leur noble indépendance et l'individualité de notre race primitive et solaire, sous le commandement d'un chef librement élu, Zumala-Carreguy [sic], et sous le drapeau nominal d'un Seigneur et Roi, D. Carlos³⁴.

31. Jainkozko urte batek 360 giza urte biltzen ditu. Beraz, *Krita* edo *Satya Yuga*-k 1.728.000 giza urte iraun zuen, *Treta Yuga*-k 1.296.000, *Dvapara Yuga*-k 864.000 eta *Kali Yuga*-k 432.000. Alegia, ziklo oso batek 4.320.000 giza urte dirau. Ikusi *Diccionario de la sabiduría oriental. Budismo, hinduismo, taoismo, zen*, Barcelona, Buenos Aires, México: Paidós, 1993 [1986]; 438. or.

32. Orfismorako eta horrek Xahoren pentsamenduan izan zuen eraginerako, ikus JUDEN, Brian. *Traditions orphiques et tendances mystiques dans le romantisme français (1800-1855)*, Paris: Klincksieck, 1971; eta EIGELDINGER, Marc. "La voyance avant Rimbaud". In RIMBAUD, Arthur. *Lettres du Voyant (13 et 15 mars 1891)*, Paris: Minandi, Genève: Droz, 1975 ; 9-110. or.

33. CHAHO, J.-Augustin. *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*, Bayonne: P. Lespés Éditeur, 1865 [1836]; 238. or.

34. CHAHO, J.-Augustin. *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*, Bayonne: P. Lespés Éditeur, 1865 [1836]; 91. or.

Independentzia garaian, Foruak izan dira Euskal Herriko konstituzioa. Ingelesek, Erdi Aroan, Lapurdi, Zuberoa eta Gaskonia osoa beretu zituztenez, euskaldunei ostu zieten konstituzioaren kontzeptua³⁵. Beraz, euskaldunek asmatu zuten demokrazia. 1835ean, *Philosophie des révélations*-en dioenez, demokrazia aztien gobernu da eta teokrazia, fededunena³⁶.

Xahorengan, Euskal Herriko egileen eragina ez ezik, Frantziakoena eta Europa osokoena ere nabarmena da. Idazle frantsesengandik hartu zuen bere burua gehienetan izendatzeko aukeratu zuen izengoitia: “aztia” (*voyant* frantsesez). Abel, Krishna, Orfeo, Zarathustra, Moises, Buddha, Sokrates, Kristo, Muhammad eta, zer esanik ez, Agosti Xaho bera izan dira aztirik garrantzitsuenak historian zehar. “Aztitasunak” alimaleko eragina izan zuen ez bakarrik Xahoren baitan, XIX. mende hasierako Frantziako literatura osoan baizik eta garai hartako egile guztiak ukitu zituen. Mugimendu horretako idazle batek, Edgar Quinet borgoniarra (1803-1875), iragarria zuenez, erlijio gnostiko berria gauzatuko zuen herria Pirinioetatik abiatzekoa zen³⁷. Ez da zaila pentsatzen Xahok Quinet-i ikasi ziola Euskal Herria izanen zela hurbiltzen ari zen Urrezko Aro berriko populu hautatua. Xahoren “konbertsio” horren antzeko adibideak aurkitzen erraza da. Andrzej Towianski (1799-1878), Adam Mickiewicz Poloniako poeta nazionalaren maisu intelektuala, lehenik sekta baten buruzagia izan zen, eta gero, erlijioaren bidez, konturatu zen poloniar herria zela Berri Onaren eramailea³⁸. William Butler Yeats-ek (1865-1939) eta George William Russell-ek (1867-1935) antzeko bidea egin zuten gnostizismotik eta teosofiatik nazionalismo irlandarrera³⁹, Vicente Riscok (1884-1963) abiapuntu beretik nazionalismo galegora bezala⁴⁰.

Esana dugu Xahok, errepublikarra bazen ere, karlismoaren alde jo zuela. Lehen Karlistadan, Erresuma Batuari eta Frantziari komeni zitzaien aduanek Ebro ibaian, eta ez Pirinioetan, irautea, merkataritzarako zergarik gabeko eremu zabal bat edukitzeko. Horregatik, britainiarrek eta frantsesek bultzatu zuten karlistada euskaldunen independentziaren aldeko borroka bat zelako ideia. Gaurko historiografiak frogatu duenez, foruek zerikusi gutxi izan zuten Euskal Herriko gerraren piztearekin, baina frantsesek eta britai-

35. Xahok Faget de Baure, 1818an *Éssais sur le Béarn* argitaratu zuena, aipatzen du bere hipotesiaren alde. Ikusi CHAHO, J.-Augustin. *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*, Bayonne: P. Lespès Éditeur, 1865 [1836]; 120. or., oharra. Faget-k nabarmenarazia zuen Gaskoniako eta Ingalaterrako erakundeen arteko lotura, baina Xahoren kontrakoa esan zuen: gaskoiek eta euskaldunek ingelesei kopiatu zieten, ez alderantziz. Ikusi MITXELENA, Eneko (= GARATE, Justo). *Viajeros extranjeros en Vasconia*, Buenos Aires: Ekin, 1942; 7-10. or.

36. CHAHO, J.-Augustin. *Philosophie des révélations, adressée a M. le professeur Lerminier*, Paris: Librairie Orientale de Mme. Dondey-Dupré, 1835; 17. or.

37. JUDEN, Brian. *Traditions orphiques et tendances mystiques dans le romantisme français (1800-1855)*, Paris: Klincksieck, 1971; 234. or.

38. TOWIANSKI, Andrzej. *Le salut de la Pologne*, Paris: Garnier Frères, 1864.

39. KIBERD, Declan. *La invención de Irlanda. La literatura de una nación moderna*, Buenos Aires: Adriana Hidalgo Editora, 2006 [1995], *passim*.

40. VENTURA, Joaquim. *O nacionalismo kármico de Vicente Risco*, Lariovento, Santiago de Compostela, 2000.

niarrek foruen iraupena eta gerraren bukaera lotu zituzten⁴¹. Baliteke Xahok zerikusirik izatea saio horiekin, Juaristik dioen bezala⁴², baina ez daukagu inolako frogarik.

Xahok, bere jarrera gnostikoagatik, uste osoa zuen Euskal Herria borrokan ari zela Europako jatorrizko zibilizazioaren hondarrei eusteko. Tira, Xaho Carlos María Isidro de Borbón (1788-1855) erregegai karlistaren alde lerratua zen Nafarroara etorri baino urte bat lehenagotik, gutxienez. Irudi lezake *Voyage*-ren parte bat idatzia zegoela Euskal Herrian sartu aitzin. Izan ere, *Paroles d'un Bizkaïen aux libéraux de la Reine Christine* (1834) liburuan, karlistekin harremanetan jarri baino lehen (baina Abrantèsko dukesaren etxera joaten ziren legitimista frantsesekin harremanetan zegoenean), esana zuen don Carlos zela nafarren errege eta bizkaitarren jauna⁴³.

Gerra garaian, buruzagi karlistei, bereiziki Tomas Zumalakarregiri berari (1788-1835), leporatu zitzaion Euskal Herriaren independentziaren alde aritzea. Xahok ez zituen zurrumurru horiek asmatu, ez eta hurrik eman ere. Lehen Karlistadan Euskal Herrian izandako zenbait bidaiarik, batzuk liberalen aldekoak (Somerville, Wilkinson eta McKenzie), baina beste batzuk karlisten aldekoak (Mitchell eta Laurens), gauza bera adierazten dute⁴⁴. Esan behar da, dena dela, XIX. mendearen lehen erdian, "independentzia" hitzak ez zuela nahitaez gaur egungo esanahia (euskal estatu bat sortzea, alegia), Madrilgo gobernuua ez onartu eta beste bat ezartzen saiatzea baizik, betiere Espainiaren barruan⁴⁵.

Oraindik ere, misterio bat da Sabino Aranak ezagutzen ote zuen Xahoren obra. Egia da ez duela inoiz aipatzen, baina ia ezinezkoa da haren lanik arrakastatsuen, *Aïtor, légende cantabre* (1845), irakurri ez izana, edizio asko izan baitzituen gaztelaniaz Arana-ren garaian, Arturo Campión-ek itzulirik⁴⁶. Bestaldetik, ez da kasualitatea, Eusko Abertzale Ekintzak, Gerra Zibila baino lehen, interes handia erakustea Xahorengan. Ramón

41. Bibliografía luzerik aipatu beharrik ez dago. Haren ikerketan ñabardurak sartu balitezke ere, oraindik aski da María Cruz Minaren tesia. Ikusi MINA, María Cruz. *Fueros y revolución liberal en Navarra*, Madrid: Alianza Editorial, 1981.

42. "La visión de la insurrección de los carlistas vascos como un movimiento de emancipación nacional, que hoy constituye uno de los dogmas del nacionalismo vasco, tiene un inequívoco origen galo, y pudo muy bien ser alimentada por ciertos grupos económicos interesados en el mantenimiento de una zona de libre comercio (y una base privilegiada para el contrabando) en las provincias vascas y Navarra. Pero quien más hizo por promover y difundir esta interpretación fue un oscuro aventurero vasco-francés: Joseph-Augustin Chaho". JUARISTI, Jon. *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, Madrid: Taurus, 1987; 77. or.

43. CHAHO, J. A. *Paroles d'un Bizkaïen aux libéraux de la Reine Christine*, Paris: Librairie Orientale de Prosper Dondey-Dupré, 1834; 3. or.

44. MITCHELL, M. *El campo y la corte de don Carlos. Narración histórica de los sucesos acaecidos en las provincias del Norte desde el momento en que Maroto tomó el mando del ejército carlista hasta la entrada de don Carlos en Francia, acompañado de documentos justificativos y notas aclaratorias*, Madrid: Boix Editor, 1840 (2), 130. or.; AZCONA, José María. "Joseph-Augustin Chaho". In *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, año IV, 1948; 493-506. or.

45. URQUIJO, José Ramón, "La Primera Guerra Carlista desde la ideología nacionalista vasca". In *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía*, 26, 1998; 70. or.

46. Lehena *Revista Euskara*-n. Ikusi CHAHO, Augustin. "La leyenda de Aitor". In *Revista Euskara*, I, 1878; 220-230, 241-248 eta 281-289. or.; eta II, 1879; 12-17 eta 44-53. or. Arturo Campión itzultzaile. Arana Goirik ez du inoiz Xaho aipatzen, bai ordea Aitor aitalehena. Ikusi ARANA GOIRI, Sabino de. *Obras completas*, San Sebastián: Senda, 1980; 1796, 2219 eta 2221. or.

Berraondo eta Justo Garate ekintzaileek ia osorik itzuli zuten gaztelaniara *Voyage en Navarre*⁴⁷. Ekintzak Arana Goiriren abertzaletasun arrazista eta konfesionalari itzala egin ziezaiokeen aurrekari historiko baten beharra zeukan eta Xaho hautatu zuen. Xahok oihartzun ukazina izan du ezkerreko abertzaletasunaren bilakaeran. Hark ulertu zue-
nez, Lehen Karlistada Euskal Herria askatzeko borroka bat izan zen eta, Gerra Zibilaren ondoren, halaxe ulertu zuten Telesforo Monzón-ek (1904-1981)⁴⁸, Federiko Krutwig-ek (1921-1998)⁴⁹ eta ETAk berak (1958-2011?). Horrelaxe sortu zen Euskal Herriaren eta Espainiaren artean izandako 150 Urteko Gerraren mitoa (Lehen Karlistadaren has-
tapenetik, hots, 1833tik, hasita). Xahok ez zuen ustezko gerra horretan sinetsiko. Hark 5.000 urteko gerra batean sinesten zuen. Karlistada, haren aburuz, Eguzkiaren Seme-
Alaben eta Gauaren Seme-Alaben arteko borroka bukaezineko gertakari bat besterik ez zen. Historiaz zeukan kontzepzio manikeo eta belizistak, ustekabeen, Euskal Herriak luzaz nozituriko bortizkeria politikoari oinarri ideologiko bat eman zion.

Xahok Espainiaren federalismoaren eta Hego Euskal Herriaren independentziaren alde jo zuen, baina beti Frantziaren batasunaren alde, bereziki 1848tik aurrera. Argi eta garbi esaten du 1849ko urriaren 19ko *Ariel*-en: “Partisan de l’unité française, l’*Ariel* n’admet des états fédéraux que pour l’Espagne, de l’autre côté des Pyrénées”⁵⁰. Oso gutxitan salatz-
zen du zentralismo frantsesa, Iraultza garaian Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa Pirinio Apaletako departamenduan deseginak zituenak. Horrek ez du esan nahi Frantziaren eta Ipar Euskal Herriaren antolamendua bost axola zitzaionik. Izan ere, departamendu berri bat sortzea proposatu zuen: *Adour-et-Gaves*, Lapurdi, Baxenabarre, Zuberoa, Baiona eta Akizeko barrutia bilduko zituena, Baiona izanen litzatekeela hiri nagusia. Xahok bertako Merkataritza eta Industria Ganberak 1836an aurkezturiko proposamenarekin bat egin zuen eta horregatik Euskal Herriko Departamenduaren aldarrikapenaren aurrekari urrun-
tzat jo dezakegu⁵¹.

Esanak esan, Xahoren esaldiren batek susmarazi dit Aztiak ez zuela Hego Euskal Herria askatu nahi, Frantziari lotu baizik. 1794an, Konbentzio Gerran, Gipuzkoako Diputazioak Probintziaren independentzia aldarrikatu zuen, Errepublikak Frantsesak babesturik⁵². Kose Garat (1749-1833) lapurtar abokatuak, Iraultza garaian Justizia eta Barne ministroa

47. “Viaje a Navarra durante la insurrección de los vascos”. In *Revista Internacional de Estudios Vascos*, XX, 1929; 105-127, 182-206, 350-377 eta 466-493. or.; XXI, 1930; 98-151. or. Martín de Anguiozar (=Ramón de Berraondo) itzultzaile; *Viaje a Navarra durante la insurrección vasca (1835)*, Bilbao: Imprenta Moderna, 1933, Justo Garate itzultzaile.

48. MONZÓN, Telesforo. *Hitzak eta idazkiak*, Donostia: Jaizkibel, 1984, VI; 67-71. or.; eta VI; 97-111. or.

49. SARRAILH, F. (= KRUTWIG, Federico). “La cuestión vasca” (1967). In *Documentos Y*, San Sebastián: Hordago, Lur, 1979-1981, XII; 161-225. or.

50. *apud* ZABALO, Joseph. *Augustin Chaho ou l’irrintzina du matin basque*, Biarritz: Atlantica, 1999; 77. or.; letra etzanak kendu dira.

51. ARKOTXA, Fermin. “150 anniversaire de l’*Uscal-Herrico Gaset*”. In *Lapurdum*, III, 1998 ; 134. or; ZABALO, Joseph. *Augustin Chaho ou l’irrintzina du matin basque*, Biarritz: Atlantica, 1999; 159. or.; CHAUSSIER, Jean-Daniel. *Quel territoire pour le Pays Basque? Les cartes d’identité*, Paris: L’Harmattan, 1996; 31-32 eta 69-72. or.

52. Txomin Castilloren arabera, Nafarroakoak berdin egin zuen. Ikusi CASTILLO, Txomin. “Konbenioko Gerla Nafarroan (1793-1795). Gipuzkoa nazionalismorantz zihoan bitartean”. In *Primer Congreso de Historia de Navarra de los siglos XVIII, XIX y XX, Príncipe de Viana*, 1986; 197-240. or.

izana zenak, Fenizia Berria sortzeko proiektua aurkeztu zion Napoleon I.a enperadoreari 1808an (Frantziako armadak Hego Euskal Herria okupaturik zeukala), alegia, zazpi euskal herrialdeen batasuna, Enperadorego Frantsesari lotutako estatu beregain bat. Bonaparteren gibelasmoa Hego Euskal Herria ez ezik, Aragoiren erdia eta Katalunia osoa ere biltzea zen⁵³. Xahok, *De l'agonie du parti révolutionnaire* liburuan (1838), bi urte eskas lehenago don Carlosen alde eginiko apustuaz erabat ahantzirik, aditzera ematen du Nemours-ko dukea izan litekeela Nafarroako errege:

L'intervention entreprise pour la gloire de la liberté constitutionnelle et de la grande unité espagnole, pourrait fort bien se terminer par une scission qui aurait l'Èbre pour limite, et qui placerait Biscaye sous la protection de la France, après avoir relevé à Pampelune, en faveur du duc de Nemours, l'ancien trône de Jean d'Albret et de Catherine de Foix, duchesse de Nemours⁵⁴.

Garai hartan, Louis-Charles-Philippe d'Orléans (1814-1896) zen Nemours-ko dukea, Louis-Philippe erregearen seme eta Xahoren parrandakidea (Katalina Foixekoa Nafarroa independenteko azken erreginak ere izana zuen Nemours-ko dukesaren titulua, Karlos III. aren garaitik Nafarroako errege-erregina guztiek bezala)⁵⁵. Xaho abertzalea baldin bazen, agian frantses abertzaleagoa zen euskal abertzalea baino.

Xahoren abertzaletasuna ezbaian jartzeko arrazoirik baldin badugu, beste hainbeste gertatzen da haren sozialismoarekin. Xaho errepublikar liberal bat zen eta ez zuen inoiz ezbaian jarri jabetza pribaturako eskubidea. "Gorria" zen Eliza eta Estatuaren arteko bereizketaren aldekoa zelako, ez komunista zelako (hitz latzekin salatu zituen komunismoa eta anarkismoa behin baino gehiagotan). Haren lanetan, gutxienez 1848ko iraultza arte, nekez aurkituko da lerroren bat esklabotza antzean bizi izaten ziren morroien egoeraz edo ogia irabazteko Ameriketara joan behar zuten milaka euskaldunetz. Xaho, horretan, ez da salbuespen bat. Haren garaiko idazle gehienek, mugimendu nazionalisten teorikoak barne, Herriaren esentzien zaindari zeritzeten nekazariei, ez eskubide politikoaren subjektu. Hori esanik, gaineratu behar da Pierre-Simon Ballanche (1776-1847) literatura frantseseko lehen aztizat jotzen denak Xahorengan ez ezik, Frantziako lehen sozialista "utopikoengan" ere eragin ikaragarria izan zuela, Saint-Simon eta Fourier-ekin batera⁵⁶. Ballanchek, Xahok eta "azti" guztiek Urrezko Arora *itzuli* nahi zuten (horixe esan nahi baitu *revolutio* latinezko hitzak) eta zentzu horretan *iraultzaileak* ziren. Kontuan hartu behar da Marx-ek eta Engels-ek 1848an *Alderdi Komunistaren Manifestua* argitaratu baino lehen, sozialismoa ez zela identifikatzen materialismo historikoarekin. Gauza ezaguna da, gainera, 1849ko hauteskunde legegileetan, Xaho demokrata-sozialen (edo sozialisten) hautagaia izan zela, ia-ia hautetsia izan zelarik.

53. DUHART, Michel. *Dominique-Joseph Garat (1749-1833)*, Bayonne: Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, Bayonne, 1992-1994, II ; 107-125. or.

54. CHAHO, Augustin. *De l'agonie du parti révolutionnaire en France. Lettre à Monsieur Jacques Laffitte*, Toulouse: Chez Jean-Baptiste Paya, 1838 ; 42. or.

55. Xaho eta Nemoursko dukea elkarrekin etorri ziren Iruñera, 1845ean, printzearen ohorean antolatutako ziren festetara, Jean-Martin Hiribarrenek bere bertsuetan gogorarazten duen bezala. Ikusi URKIZU, Patri. "Jean-Martin Hibarren, *Iruñeko bestak 1845*". In *Lapurdum*, VI, 2001; 319-351. or.

56. JUDEN, Brian. *Traditions orphiques et tendances mystiques dans le romantisme français (1800-1855)*, Paris: Klincksieck, 1971; 265-266 eta 369-379. or.

5. EUSKARA, AZTIEN HIZKUNTZA

Xahoren Historiaren Filosofian hizkuntza eta erlijioa funtsezkoak dira. Ia-ia bat dira. Azti guztiek bezala, sinesten zuen historiaren hasieran “erlijio naturala” zela nagusi. Doktrina horren abiapuntua da sinestea historiaren hasieran jainkozko Errebelazio bakar bat izan zela herri guztiendako. Hipotesi hori Wilhelm Schmidt (1868-1954) apaiz alemanak zabaldu zuen Xahoren ondoren⁵⁷. Schmidt-en eta Vienako eskola antropologikoaren eragina begi bistakoa da beste apaiz batengan, Joxemiel Barandiaran (1890-1991) gipuzkoarrarengan, hain zuzen ere, eta, beraz, garaikideak ez baziren ere, ez da gehiegikeria Xaho eta Barandiaran ikaskidetzat eta gogaidetzat jotzea. Egile horien guztien arabera, gizateriaren lehen erlijioa monoteismoa izana zen eta politeismoa jatorrizko monoteismo horren endekatzearen ondorioa izan liteke. Hasierako fede horrek haren deismo gnostikoarekin bat egiten zuen:

A part les Asturies et quelques vallées de Léon et de Galice, les Basques, chefs de la Croisade entreprise par nos montagnards contre les Arabes-Maures, représentaient seuls la nationalité espagnole et chrétienne. Ibériens, Euskariens, Vasco-Navarrais, qu'on les appelle comme on voudra; les Basques, habitants primitifs de la Péninsule, patriarches de la liberté occidentale, n'avaient jamais été idolâtres, et professèrent jusqu'au Christianisme le Déisme le plus pur. La croyance en l'unité de Dieu avait été plus ferme chez eux dans l'antiquité, qu'elle ne l'était chez les Mahométans au moyen âge. Quand Rome païenne essaya d'introduire ses temples chez les Vascons, nos montagnards donnèrent une charmante leçon au Polythéisme. Comme leurs ancêtres, ils ne divinèrent après Dieu, que la vertu de la femme. Ils n'élevèrent qu'aux Dames et Dominatrices, des autels de feuillage où ils déposaient des guirlandes et des couronnes de fleurs. Tout cela est écrit dans leur histoire. L'établissement du Christianisme ne fit que cimenter chez eux les mœurs antiques, la sainte égalité de sexes et l'inviolabilité du mariage patriarcal, loi fondamentale des sociétés, loi de Dieu!⁵⁸

Xahoren arabera, euskal folklorea hasierako erlijio horren aztarna batzuek diraute. Adibidez, *Leherensugea* kosmosaren suntsitzailea da, nahiz eta, egia esan, hark deskribatzen duen moduan, zerikusi handiagoa du orfikoan jatorrizko sugearekin Euskal Herriko mitoetako dragoiarekin baino. Hark zioenez, Leherensugeak beste izen bat du kasuan kasuko mitologian: *Chub* (Shiva) Indian, *Typhon* (Seth) Egipton, *Ahriman* Persian eta *Satan* Israelen. Horien etsaiak *Chourien*, *Osiris*, *Ormusd* eta *Kristo* dira, hurrenez hurren⁵⁹.

Hasierako erlijio horri hasierako hizkuntza bat dagokio, pentsatzen zuenez, oraingo hizkuntzen bidez ezagut zitekeena, Antoine Court de Gébelin (1719-1784) eruditua esoterikoaren teoretan oinarriturik⁶⁰. Agostiren lehen lanetako bat *Paroles d'un voyant* izan zen, 1834an argitaratua eta berehala Gregorio XVI.a aita santuak liburu debekatuen *Index* delakoan sartu zuena. Lan horretan zantzu batzuk ematen dizkigu aztien hizkuntza

57. EVANS-PRITCHARD, E. E. *Las teorías de la religión primitiva*, Madrid: Siglo XXI, 1989 [1965]; 59-60. or.

58. CHAHO, Augustin. *Safer ou les houris espagnoles*, Paris: Jules Laisné Éditeur, 1854, I; 116-117. or.

59. CHAHO, Augustin. *Paroles d'un voyant*, Bayonne: Harriet, 1989 [1834], *passim*.

60. COURT DE GÉBELIN, Antoine. *Le Monde primitif analysé et comparé avec le monde moderne considéré dans son génie allégorique et dans les allégories auxquelles conduisit ce génie*, Paris: Chez l'auteur [etc.], 1774-1796.

hori irudikatzeko. Xahori esker dakigu hizkuntza horretan hitz berak bi esanahi dituela. Adibidez: mintzaira sakratuan berdin esaten da *vérité* eta *soleil*, *blanc* eta *agneau*, *feu* eta *serpent*, *nourriture* eta *instruction*, *année* eta *inondation*...

Le soleil physique n'était aux yeux des voyans que l'image, l'ombre du soleil des intelligences; et ils exprimaient par le même mot inspiré la *vérité* et le *soleil*.

Ils appliquaient la même épithète descriptive au blanc soleil et aux blancs agneaux qui naissent vers le solstice [...].

Los voyans exprimaient par le même inspiré le *feu* et le *serpent*: le serpent fut en conséquence choisi par les académiciens-prêtres comme mythe du principe igné, spiritueux [...].

Les voyans se servaient du même radical inspiré pour exprimer la nourriture et l'instruction [...].

Les voyans, avant l'adoption de l'année solaire et l'invention du zodiaque, comptèrent longtemps leurs années par les débordemens du Nil dont ils habitèrent les rives.

Ils désignèrent l'année par un mot expressif qui signifie *inondation*⁶¹.

Hori ez da hala frantsesez, baina bai euskaraz. *Vérité* "egia" da eta *soleil*, "ekhia": hortik *Ekiristi*⁶², alegia, Kristo, eguzkiaren pertsonifikazioa. *Blanc* "xuria" da euskaraz eta *agneau*, "axuria" eta hortik euskaldunak ez beste hegotar herriek Kristori emaniko izenak: *Chourien* (Surya) indiarrek, *Osouris* (Osiris) egiptoarrek eta *Chourmusd* (Ormusd) persiarrek⁶³. *Feu* "sua" da eta *serpent*, "sugea", suge batek suaren bidez suntsitzen baitu unibertsoa 60.000 urtetik behin. *Nourriture* "jaka" da eta *instruction*, "jakin", zientzia arimaren elikagaia baita. Azkenik, *année* "urtea" da eta *inondation* "urtzea" izan daiteke, Egiptoko aztiak konturatu baitziren Nilo ibaiak urtero egiten duela gainezka. Aztien jainko bakar eta hirukoaren izena, *lao*, *lao-On-Goikoa*-tik omen dator eta, ustez, *Yahweh* juduen jainkoaren eta *lao-piter* edo Jupiterren erromatarren jainkoaren izenei lotua dago. *lao* orfikoek Fanes izaki gorenaren izenetako bat ere bazen⁶⁴. Imajinatzen ahal dugu Félicité de Lamennais-en ezinegona Xahok *Paroles d'un croyant* (1834) liburuari emaniko erantzuna irakurri bazuen. Eta urrikaltzen naiz Brian Juden-ekin eta Marc Eigeldinger-ekin, biek pazientzia miresgarri batekin Xahoren obra aztertu baitute, ulertu gabe bere ama hizkuntzaz ari zela. Agostik frogatu nahi zuen euskara gizateria osoaren (edo, behizat, gehienaren) hizkuntza izan zela Lehen Aroan.

Euskaldun guztiak bezala, Xaho oso interesaturik zegoen euskararen jatorrian eta saiatu zen gure hizkuntza beste batzuekin alderatzen, hala nola, akitanierarekin (zuzen) eta iberierarekin (oker). Euskararen jatorriari buruzko kaukasiar hipotesia ez zuen garatu, baina, Jeronimo (340-420) santuaren garaitik datorren ideari lotuz, Antzinatean zeuden bi Iberiak (Europaren hego-mendebalekoa eta Georgiakoa) uztartzen saiatu zen. Elizaren

61. CHAHO, Augustin. *Paroles d'un voyant*, Bayonne: Harriet, 1989 [1834]; i-ii, v, 57 eta 75-76. or.

62. CHAHO, J.-Augustin. *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*, Bayonne: P. Lespés Éditeur, 1865 [1836]; 379. or.

63. CHAHO, Augustin. *Paroles d'un voyant*, Bayonne: Harriet, 1989 [1834]; 90-91. or.

64. GRAVES, Robert. *Los mitos griegos*, Madrid: Alianza Editorial, 1985 [1960]; 34. or, 2. oharra.

Aitaren iritzia iritzi, Xaho ez zegoen prest onartzeko georgiarrak Euskal Herrira etorri zirela eta nahiago izan zuen pentsatzea euskaldunak Georgiara joan zirela⁶⁵.

Xaho bere garaiko hizkuntzalaritza konparatuaren aurrerapenen jakinaren gainean zegoen. Adibidez, ongi informatua zegoen indoeuropeistikaren lehen eta duda-mudazko urratsez. Salmasius, Stiernhielm, Boxhornius eta Leibniz-ek arlo horretan eginiko ikerketen berri bazuen⁶⁶. *Lettre à M. Xavier Raymond* liburuan (1836), euskararen eta sanskritoaren arteko loturak aztertu zituen⁶⁷. Berez, Xahok ez dio inolako harremanik dagoenik euskararen eta indoeuropar hizkuntzen artean, baizik eta euskararen eta iparraldeko vediko edo eszitiarren (hots, indoeuroparren) inbasioa baino lehen Indian hitz egiten ziren hizkuntzen artean. Sanskritoak aurre-indoeuropar substratuaren hondarrak gorde ditu eta Xaho horiek euskararen bidez bilatzen saiatu zen. Agian, uste zuen euskara gaur egun Indiaren hegoaldean hitz egiten diren mintzaira dravidiarrekin loturik zegoela, gaur egun ere pentsatu ohi delako hizkuntza horiek indoeuroparren aurrekoak direlako. Hori horrela, Aztia Holger Pedersen (1867-1953) daniarraren “nostratikoa” eta Morris Swadesh (1909-1967) amerikarraren “euskara-dene” hizkuntza makrofamilien eta Theo Vennemann (1937) alemanaren Europa osoko “Proto-Vasconic” teoriaren aitzindari bat izan liteke. Zer esanik ez, hipotesi horiek inork gutxi onartzen ditu gaur egun, baina ezin uka arras erakargarriak direla.

Euskara giltzarria da Agostiren pentsamenduan, baina, egia esan, aurreko mendeetako apologisten gogoetetatik ez oso urrun. Basabürütarraren aburuz, euskararen gramatika sintetikoak pentsa litezkeen bertute guztiak zeuzkan nazioarteko hizkuntzaren oinarria izateko. Xahoren hizkuntza teoriak, beraz, Sabino Aranaren garbizalekeriaz beste muturrean daude. Euskararen apologiak nolabaiteko esperanto bihurtu nahi izateko puntu-raino eraman zuen zuberotarra. Joskera aldatu beharrik gabe, euskarak Lurreko hizkuntza guztietako bost milioi hitz bereganatu litzake:

La grammaire synthétique de l'euskarien présente les avantages imaginés par les grands penseurs des derniers siècles, pour fonder toutes les règles de ce que l'on est convenu d'appeler un idiome polyglotte, une langue universelle [...]. La langue basque pourrait sans inconvénient s'approprier les mots de toutes les autres langues de la terre, c'est-à-dire près de cinq millions de mots; elle peut les plier tous sans effort à son génie particulier, aux règles invariables de sa formation primitive, parce que, seule peut-être au monde, elle possède toutes les bases philosophiques d'une grammaire générale et d'un dictionnaire polyglotte, universel⁶⁸.

65. CHAHO, J.-Augustin. *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*, Bayonne: P. Lespés Éditeur, 1865 [1836]; 241-242. or.

66. CHAHO, J.-Augustin. *Dictionnaire Basque, Français, Espagnol et Latin, d'après les meilleurs auteurs classiques et les dictionnaires des Académies française et espagnole*, Bayonne: Lespés, 1856; 47. or.

67. CHAHO, J.-Augustin. *Lettre à M. Xavier Raymond, sur les analogies qui existent entre la langue basque et le sanscrit*, Paris: Arthus Bertrand, 1836.

68. CHAHO, J.-Augustin. *Dictionnaire Basque, Français, Espagnol et Latin, d'après les meilleurs auteurs classiques et les dictionnaires des Académies française et espagnole*, Bayonne: Lespés, 1856; 39-40. or.

Palingenesi linguistikoaren ideia hori Mendekoste laiko bat da eta Fabre d'Olivet-enganetik hartua dago berriro. Fabrek sekulako eragina izan zuen Benjamin Lee Whorf (1897-1941) hizkuntza erlatibismoaren bultzatzaile nagusiarengan. Whorf-ek uste zuen hizkuntzak pentsamendua determinatzen duela. Denok dakigunez, hipotesi hori, nire ustez inolako funtsik ez daukana, nazionalismo guztien oinarrietako bat da. Bitxia da, beraz, hipotesi horren sorreraren eta erromantiko euskaldun baten arteko zeharkako lotura. Whorf-ek ere izan zuen amets gizateriaren jatorrizko hizkuntza, geroko nazioarteko hizkuntza izatekoa zena⁶⁹. Xahok dudarik egiten ez zuenez jatorrizko hizkuntza hori euskara zela, haren ikuspegitik, erabat logikoa zen *avant la lettre* esperantoa huraxe izan zedila.

Beraz, euskara historiaren hasieran ez ezik, bukaeran ere jartzen du Xahok. Lehen hizkuntza ez ezik, azkena ere izanen da. Babel eta Mendekoste euskararen uztartu dira.

6. AZKEN GOGOETA

Xaho ez zen pentsalari edo zientzialari bat, baina gai izan zen Historiaren Filosofia koherente bat sortzeko. Filosofia horrek osagai asko biltzen ditu, batzuk mitologikoak, beste batzuk XVI. mendetik XIX. mendera bitarteko idazle euskaldun, espainol eta frantsesengatik hartuak, eta Xahok arlo askotan (politikan, erlijioan eta hizkuntzalaritzan, adibidez) izan zuen jarrera baldintzatu zuen erabat. Euskarak eta euskal folkloreak toki berezia zuten haren pentsamenduan, Euskal Herria hurbiltzen ari den Laugarren Aroaren etorreraren berri-emailea izatekoa baitzen. Agosti Xaho, "Umezurtza", benetako Azti Euskalduna izan zen.

7. BIBLIOGRAFIA AIPATUA

ARANA GOIRI, Sabino de. *Obras completas*, San Sebastián: Sendoa, 1980.

ARKOTXA, Fermin. "150 anniversaire de l' *Uskal-Herrico Gasetta*". In *Lapurdum*, III, 1998; 125-201. or.

AZCONA, José María. "Joseph-Augustin Chaho". In *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, año IV, 1948; 493-506. or.

BANAC, Ivo. *The National Question in Yugoslavia. Origins, History, Politics*, Ithaca, London: Cornell University Press, 1988.

BARANDIARAN, José Miguel de. *Diccionario ilustrado de mitología vasca y algunas de sus fuentes. Obras completas I*, Bilbao: Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, 1972.

BARSANTI, Giulio. *Una lunga pazienza cieca. Storia dell'evoluzionismo*, Torino: Giulio Einaudi Editore, 2005.

BORGES, Jorge Luis. "Historia de la eternidad" (1936). In *Obras completas*, Buenos Aires: Emecé Editores, 2002, I; 347- 423. or.

BURY, John B. *La idea de progreso*, Madrid: Alianza Editorial, 1971 [1920].

69. CARROLL, John B.: "Introducción". In WHORF, Benjamin Lee. *Lenguaje, pensamiento y realidad*, Barcelona: Barral, 1971 [1956]; 13-47. or.

- CARROLL, John B. "Introducción". In WHORF, Benjamin Lee. *Lenguaje, pensamiento y realidad*, Barcelona: Barral, 1971 [1956]; 13-47. or.
- CASTILLO, Txomin. "Konbenioko Gerla Nafarroan (1793-1795). Gipuzkoa nazionalismorantz zihoan bitartean". In *Primer Congreso de Historia de Navarra de los siglos XVIII, XIX y XX, Príncipe de Viana*, 1986; 197-240. or.
- CHABOD, Federico. *L'idea di nazione*, Roma, Bari: Laterza 1992 [1961].
- CHAHO, J. A. *Paroles d'un Bizkaïen aux libéraux de la Reine Christine*, Paris: Librairie Orientale de Prosper Dondey-Dupré, 1834.
- CHAHO, Agosti. *Azti-begüia, Ziberou herri maitiari, Pariserik igorririk, beste hanitchen aitzindari, arguibidean*, Paris: Librairie Orientale de Prosper Dondey-Dupré, 1834.
- CHAHO, J.-Augustin. *Philosophie des révélations, adressée a M. le professeur Lerminier*, Paris: Librairie Orientale de Mme. Dondey-Dupré, 1835.
- CHAHO, J.-Augustin. *Lettre a M. Xavier Raymond, sur les analogies qui existent entre la langue basque et le sanscrit*, Paris: Arthus Bertrand, 1836.
- CHAHO, Augustin. *De l'agonie du parti révolutionnaire en France. Lettre à Monsieur Jacques Laffitte*, Toulouse: Chez Jean-Baptiste Paya, 1838.
- CHAHO, Augustin. *Histoire primitive des Euskariens-Basques, langue, poésie, mœurs et caractère de ce peuple, introduction à son histoire ancienne et moderne*, Madrid, Bayonne: Jaymebon Éditeur, 1847.
- CHAHO, Augustin. *Philosophie des religions comparées*, Paris, 1848.
- CHAHO, Augustin. *Safer ou les houris espagnoles*, Paris: Jules Laisné Éditeur, 1854.
- CHAHO, J.-Augustin. *Dictionnaire Basque, Français, Espagnol et Latin, d'après les meilleurs auteurs classiques et les dictionnaires des Académies française et espagnole*, Bayonne: Lespés, 1856.
- CHAHO, J.-Augustin. *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*, Bayonne: P. Lespés Éditeur, 1865 [1836].
- CHAHO, Augustin. "La leyenda de Aitor". In *Revista Euskara*, I, 1878; 220-230, 241-248 eta 281-289. or.; eta II, 1879; 12-17 eta 44-53. or. Arturo Campión itzultzaile.
- CHAHO, Augustin. "Viaje a Navarra durante la insurrección de los vascos". In *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, XX, 1929; 105-127, 182-206, 350-377 eta 466-493. or.; XXI, 1930; 98-151. or. Martín de Anguiozar (= Ramón de Berraondo) itzultzaile.
- CHAHO, Augustin. *Viaje a Navarra durante la insurrección vasca (1835)*, Bilbao: Imprenta Moderna, 1933, Justo Garate itzultzaile.
- CHAHO, Augustin. *Paroles d'un voyant*, Bayonne: Harriet, 1989 [1834].
- CHAUSSEIER, Jean-Daniel. *Quel territoire pour le Pays Basque? Les cartes d'identité*, Paris, L'Harmattan, 1996.
- COURT DE GÉBELIN, Antoine. *Le Monde primitif analysé et comparé avec le monde moderne considéré dans son génie allégorique et dans les allégories auxquelles conduisit ce génie*, Paris: Chez l'auteur [etc.], 1774-1796.
- Diccionario de la sabiduría oriental. Budismo, hinduismo, taoísmo, zen*, Barcelona, Buenos Aires, México: Paídos, 1993 [1986].
- DUHART, Michel. *Dominique-Joseph Garat (1749-1833)*, Bayonne: Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, Bayonne, 1992-1994.

- EIGELDINGER, Marc. "La voyance avant Rimbaud". In RIMBAUD, Arthur. *Lettres du Voyant (13 et 15 mars 1891)*, Paris: Minandi, Genève: Droz, 1975.
- ELIADE, Mircea. *El mito del eterno retorno: arquetipos y repetición*, Madrid: Alianza Editorial, 1999 [1949].
- EVANS-PRITCHARD, E. E., *Las teorías de la religión primitiva*, Madrid: Siglo XXI, 1989 [1965].
- FABRE D'OLIVET. *Histoire philosophique du genre humain ou l'homme considéré sous ses rapports religieux et politiques dans l'État social, à toutes les époques et chez les différents peuples de la terre*, Paris: Chez J. L. J. Brière, 1824.
- FONTANA, Josep. *Historia: análisis del pasado y proyecto social*, Barcelona: Crítica, 1982.
- FUKUYAMA, Francis. *The End of History and the Last Man*, New York: Free Press, 1992.
- GRAVES, Robert. *Los mitos griegos*, Madrid: Alianza Editorial, 1985 [1960].
- HEGEL, Georg Wilhelm Friedrich. *Lecciones sobre la Filosofía de la Historia universal*, Madrid: Alianza Editorial, 1980 [1837].
- JUARISTI, Jon. *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, Madrid: Taurus, 1987.
- JUDEN, Brian. *Traditions orphiques et tendances mystiques dans le romantisme français (1800-1855)*, Paris: Klincksieck, 1971.
- KIBERD, Declan. *La invención de Irlanda. La literatura de una nación moderna*, Buenos Aires: Adriana Hidalgo Editora, 2006 [1995].
- KOHN, Hans. *Historia del nacionalismo*, México: Fondo de Cultura Económica, 1949 [1944].
- MANGAS, Julio; PLÁCIDO, Domingo (ed). *La Península Ibérica Prerromana de Éforo a Eustacio. Testimonia Hispaniae Antiqua IIB*, Madrid: Fundación de Estudios Romanos, 1999.
- MINA, María Cruz. *Fueros y revolución liberal en Navarra*, Madrid: Alianza Editorial, 1981.
- MITCHELL, M. *El campo y la corte de don Carlos. Narración histórica de los sucesos acaecidos en las provincias del Norte desde el momento en que Maroto tomó el mando del ejército carlista hasta la entrada de don Carlos en Francia, acompañado de documentos justificativos y notas aclaratorias*, Madrid: Boix Editor, 1840 (2).
- MITXELENA, Eneko (= GARATE, Justo). *Viajeros extranjeros en Vasconia*, Buenos Aires: Ekin, 1942.
- MONZÓN, Telesforo. *Hitzak eta idazkiak*, Donostia: Jaizkibel, 1984.
- MOULINAT, Francis. "Lassailly + Gautier. Ariel = une élégante retraite?". In *Bulletin de la Société Théophile Gautier*, tome I, 1993, nº 15; 231-247. or.
- PEZRON: *L'antiquité des tems rétablie et défenduë, contre les Juifs et les Nouveaux Chronologistes*, Amsterdam: Chez Henry Desbordes, 1687.
- PEZRON, R. P. Dom. *Antiquité de la nation et de la langue des Celtes, autrement appelez Gaulois*, Paris: Chez Jean Boudot, 1703.
- POLIAKOV, Léon. *Le mythe aryen. Essai sur les sources du racisme et des nationalismes*, Bruxelles: Éditions Complexe, 1987 [1971].
- REY, Alain (dir.). *Dictionnaire historique de la langue française*, Paris: Le Robert, 1998.
- SARRAILH, F. (= KRUTWIG, Federico). "La cuestión vasca" (1967). In *Documentos Y*, San Sebastián: Hordago, Lur, 1979-1981, XII; 161-225. or.
- TOWIANSKI, Andrzej. *Le salut de la Pologne*, Paris: Garnier Frères, 1864.

- URKIZU, Patri. "Jean-Martin Hibarren, *Iruñeko bestak 1845*". In *Lapurdum*, VI, 2001; 319-351. or.
- URQUIJO, José Ramón. "La Primera Guerra Carlista desde la ideología nacionalista vasca". In *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía*, 26, 1988; 65-110. or.
- VENTURA, Joaquim. *O nacionalismo kármico de Vicente Risco*, Laivento, Santiago de Compostela, 2000.
- ZABALO, Joseph. *Augustin Chaho ou l'irrintzina du matin basque*, Biarritz: Atlantica, 1999.
- ZABALTZA, Xabier. *Una historia de las lenguas y los nacionalismos*, Barcelona: Gedisa, 2006.